


JARDUERAK

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentuz eta, azkenik, diru sarrerak sortuz egin beharreko jarduerak dira. Ondoko hauek dira funtsezko jarduerak: produkziozko jarduerak, arazo konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak.



Gure enpresa garatzeko eta aurrera eramateko, hainbat jarduera burutu beharko ditugu produkzioarekin erlazionaturakoak batez ere; jarduera hauen artean gure produktuen kalitatezko produkzioa nabarmendu beharko dugu, hau izango da beste enpresengandik nabarmenduko gaituen berezitasuna eta bezeroek asko nabarituko duten elementu bat da. Gainera, gure aterkiek edukiko duten diseinu pertsonalizatu eta bereizgarria beste elementu garrantzitsu bat izango da bezeroek gure produktuak aukera dezaten. Hortaz gain, gure produktua dendetara iristeko prozesua ere oso garrantzitsua izango da gure enpresak aurrera egin dezan, izan ere, gure bezeroek asko baloratuko dute dendan gure produktua beti aurkitzea eta atzerapenik ez edukitzea banaketan. Azkenik, produkzioa asko neurtuko dugu, produkzio zehatz bat ezarri beharko dugu, prozesu hau eskariaren arabera izango da. Bestela ez dugu kantitate zehatzik produzituko eta oso zaila izango da bezeroak mantentzea.